

Kandido



ARITZ GALARRAGA

Baratzeari buruzko sententziarik ilustratua utzi nuen pasa den asteko zutabetik kanpo, nahita, zutabe osoa merezi baitu Voltairek 1759an argitara emandako *Kandido*-k. Izen bereko pertsonaia xalo, lañoak, munduan zehar ibili ondoren, hau esaten bukatzen baitu –*spoiler alert!*–: “Il faut cultiver notre jardin”. Geure jardina landu behar dugu, esaldi dagoeneko mitikoa, hamaika modutara interpretatu dena. Julian Barnes kexu da, nolatan baratze-gelditasunaren aldeko gomendio filosofiko bat bilakatu ahal izan den kodizia egoistaren justifikazio. Niri kolofoi bikaina iruditzen zait, nobela bikain eta oso gaurko batentzat, basikoki gehiegizko baikortasunaren kontrakoa –“dena ongi dagoela baieztu dutenek ergelkeria bat esan dute; oro ezin hobeki dagoela esan behar zuketean”–, oro har sineskeria guztien kontrakoa –Ibon Sarasolarena da 1972ko itzulpena, eta nire aleak Donostiako San Ignacio de Loyola kolegioaren zigilua darama, kurioski, jesuitekin bereziki sartzen den liburu batean–.

Kandido, beraz, badago pasarte eskisito bat, zeinean izen bereko pertsonaia apal, bakunak bisita egiten dion Pococurante veneziar jaun nobleari. Afari bikain baten ondoren, biblioteka sartzen dira. Homeroren liburu bat ikusiko du Kandidok eta hasiko zaio goratzen. Nobleak, aldiz, gogoko ez: “Pertsona egia guztiek liburua eskuetatik erortzen zitzaiela aitortu daukate, baina bibliotekan eduki behar zela beti”. Virgilio laudatu, eta berdin, Horazio, Zizeron, ikusten dituzten liburu guztiak. Biblioteka errepasatu ondoren, jardinerara jaisten dira. Gauza da jardina ere laudatzen dionean, purrustadaka erantzuten diola jabeak. Galdera filosofiko bat paratuko du orduan Kandidok: ez al dago plazerik dena kritikatzean, gainerako gizakiek edertasuna ikusi uste duten lekuan akatsak sentitzean? Alegia, plazera egon daiteke plazerik ez izatean? Tomateak ureztatzen noa, erantzuna pentsatu bitartean. ●



OÑATI
dabilen herria

Euskeraz gehixago,
gehixagotan, gehixagokin!
Egingo xonagu/xuagu?

